



Izen-osagarri batzuk izenaren ezkerrean kokatzen dira:

- izenlagunak: **nire herriko etxea**
- erlatibo-perpausak: **gaur goizean etorri den ikaslea**.

Horrelako osagarriek, edo haiek izenaren ezkerrean metatzeak, zaildu egin dezakete mezua ondo ulertzea.

- **Sua barnealderako akabera-material baten gainazalean zehar hedatzen den abiaduraren neurria.**

Batzuetan, ezinbestekoa izaten da horrelako egitura konplexuak erabiltzea; beste batzuetan, ordea, saihestu egin daitezke. Fitxa honetan, zailtasun horren eragile izan daitezkeen bi kasu aztertuko ditugu, eta bakoitzean erabil daitezkeen estrategia bat proposatuko.



Izen-sintagma › zehar-galdera



Izen-sintagma › zehar-galdera

Termodinamikak ez digu
adierazten **prozesuak**
gauzatzen diren **abiadura**.

Termodinamikak ez digu
adierazten **zer abiaduratan**
gauzatzen diren **prozesuak**.



Zehar-galdera onartzen duten aditzekin (*adierazi, esan, jakin, kalkulatu...*), izen-egituraren ordeez, zehar-galdera balia dezakegu.

(Ikus EHULKUren aholkua: "[...etorriko dela](#)"; 7. diap)



Izen-sintagma › zehar-galdera

(#) Kalkula ezazu 7 g
nitrogeno 10 litroko ontzi
batean 870 mm Hg-ko
presioan dagoen tenperatura.

Kalkula ezazu zer
tenperaturatan dagoen 7 g
nitrogeno 10 litroko ontzi
batean, 870 mm Hg-ko
presioan.





Izen-sintagma › zehar-galdera

Oxigeno-eskari biologikoa uraren kalitatea adierazteko parametroa da: **urak duen materia organikoa biologikoki degradatzeko behar litzatekeen oxigeno kantitatea adierazten du.**

Oxigeno-eskari biologikoa uraren kalitatea adierazteko parametroa da: **adierazten du zenbat oxigeno behar litzatekeen urak duen materia organikoa biologikoki degradatzeko.**






Izen-sintagma › zehar-galdera

Zenbakitzaileak **konpasa** osatzen duen aldi kopurua adierazten du. Izendatzaileak aldi horietako bakoitzaren unitatearekiko balioa adierazten du.

Zenbakitzaileak adierazten du zenbat aldik osatzen duten **konpasa**, eta izendatzaileak, zer balio duen aldi horietako bakoitzak unitatearekiko.





Izen-sintagma › zehar-galdera

Dena dela, lehenik, **urte**
bakoitzean hileko egingo
duzun zerbitzu kopurua
zehaztu behar duzu.

Dena dela, lehenik, zehaztu
behar duzu **zenbat** zerbitzu
egingo dituzun hilean, **urte**
bakoitzean.



Izen-sintagma › zehar-galdera

Nolanahi ere, batzuetan, osagarriaren luzeraren edo konplexutasunaren arabera, aditza aurreratzea izan daiteke aski mezuaren ulertzea errazteko, baina, gaizki-ulertuak saihestearren, ondo zedarritu behar da osagarria.

Dena dela, lehenik, **urte bakoitzean hileko egingo duzun zerbitzu kopurua zehaztu behar duzu.**

Dena dela, lehenik zehaztu behar duzu **urte bakoitzean hileko egingo duzun zerbitzu kopurua.**

Esaterako, honako esaldi hau anbigua izan daiteke:

Dena dela, lehenik, zehaztu behar duzu urte bakoitzean hileko egingo duzun zerbitzu kopurua.

Urte bakoitzean zehaztu behar duzu, ala urte bakoitzean egingo duzu?



Zein da...izena? › Zer/zein + izena...?



Zein da izena? › **Zer/Zein + izena...**?

Zein da lubrifikatzaile
sintetiko baten eta mineral
baten arteko
desberdintasuna?

Zer desberdintasun dago
lubrifikatzaile sintetiko baten
eta mineral baten artean?




(Ikus EHULKUren aholkua: **Zein/zer**)



Zein da izena? › Zer/Zein + izena...?

Airearen erresistentzia aintzat hartu gabe, zein izango da lurrazalera iristean jaurtigaiak horizontalarekin eratuko duen angelua?

Airearen erresistentzia aintzat hartu gabe, zer angelu eratuko du jaurtigaiak horizontalarekin, lurrazalera iristean?



Zein da izena? › Zer/Zein + izena...?

Zein dira eraginik handiena duten aldizkari zientifikoak komunikazio-arloan?

Zer aldizkarik dute eraginik handiena komunikazio-arloan?





AZKEN OHARRA

Argi gera bedi komunikazioa errazteko estrategiez ari garela fitxa honetan, eta ez egituren zuzentasunaz; izan ere, ikuspegi horretatik, fitxako adibide guztiak zuzenak dira.